

Populazioaren aldaketak, inmigrazioa eta etorkizunerako joerak

Azken urteotan joera demografikoen aldaketa nabarmenak jaso ditugu eta, zalantzarik gabe, joera horiekin jarraituko dugu datozen urteotan.

Denbora luzean Europako jaiotze tasa txikienetarikoak izan ditugu eta, aldi berean, bizitza esperantza gero eta luzeagoa. Ondorioz, zaharkitutako populazioak pisu handia hartze du gure herrian. Bestalde, familien egituraren aldaketak ematen dira, eta gizabanako familiak, pertsona bakarra etxebizitza batean, edo monoparentalak, guraso bakarra, aita edo ama, aurrekin bizitzen, gero eta arruntagoak dira gure artean.

Honen inguruan, Euskal Estatistika Institutuak, EUSTAT-ek, aurreikuspenak egin ditu eta 2010 urteari begira, jaiotze tasak zerbait gora egingo duela espero da, eta duela gutxi arte batzuetan beste emakume bakoitzak haur bat baino ez bazen, tasa hau 1,4 haur izatera ailegatzea aurreikusten da. Hilkortasun tasei dagokionez, gero eta altuagoak izango dira, batzuetan besteak 76,5 urte gizonekoentzat eta 85,5 gizonekoentzat izango direlarik.

Beraz, biztanleriaren bilakaera eta etorkizunari begirako aurreikuspena zahartzarora, gazteen emigrazioa, jaioterri bueltatzen den emigrazio eta, orokorra, populazioaren beherakadarekin lotuta dago.

Datu argi eta zehatzak ditugu joera hauen lekuko: 1986 urtean 64 urte baino gehiago zuen biztanlekoa %10,8a baino ez zen, 1996an %15,4a zen eta 2010 urterako egindako aurreikuspenak %20a izan daitekela diote. Aldiz, 1986 urtean gazteek %29,2 ziren, 1996 urtean 19,7a baino ez ziren, eta portzentaia hori, 2010 urtean, %17an koka daiteke.

Baina, era berean gure herrian eta eskualdean berria ez izan arren, eraberritu egiten ari den beste gertaera garrantzitsu bat ematen ari da: inmigrazioarena. Eta izan ere, lehen aipatutako zahartzarorako joera, epe laburrera begira, bakar bakarrik etorkinen inmigrazioak orekatuko du.

Ez derrigorrez, baina orokorrean populazio zaharkitu batek dinamismo gutxiago du: ekintzaile gutxiago, asmo berri urriagoak, etorkizunarekiko itxaropen gutxiago, ... Salbuespenak kasu, gizarte batek populazio orekatu bat behar du eta gazteek ematen duten dinamismoaren premia du.

Gertaera berri bat?


Berrogei eta hirurogei hamarkadetan emigrazio prozesu indartsua izan zuen gure herriak eta bailarak. Baina, azken urteetan emigrazio berri bat ezagutzen ari gara, nagusiki Magreb-ko herrialdeetatik, Afrika beltzetik, Latinamerika eta Europako ekialdetik datorkigun emigrazioa. Joera berri bat, baina ziur asko hasi baino ez dena.

Gertaeraren esplikazio gisa azalpen soziologiko asko argudiatu daitezke, seguruenez globalizazioa eta jaioterrietan jasaezinezko egoera dira sinisgarrienak. Egoera global batean, eta oreka global bat ematen ez den bitartean, mugimendu migratorioak gero eta handiagoak izango dira.

Datu zehatzik ez dugu esku artean, baina gaur egun %2aren ingurua lehen aipatutako herrialdeetatik datorkigu, eta litekeena da urte gutxitan %6-%8aren inguruan izatea.

Era berean, antzina bezala, zehaztu gabeko gazte kopuru batek Eibartik eta eskualdetik kanpora jo du lan eta bizitza aukeren bila azken urteetan. Beraz, gure artean berriak ez diren joan etorriko mugimenduak eman dira, ematen ari dira eta emango dira etorkizunean.

DEBABARRENAKO POPULAZIOAREN BILAKAERA



Erronka berriak etorkizunari begira

Herri edo gizarte giza, nola jokatu egoera hauen aurrean? Duela gutxi, besteak beste, gai hauen inguruan Debegesa eskualdeko garapenerako agentziaren barruan hausnarketa estrategikoa egin zen eta aldaketa hauek eragingo dizkiguten erronkak aztertzeo aukera izan genuen. Aztertu ziren gaiak asko izan ziren, baina garrantzizkoak deritzodan honako hauek aurreikusten genituen hausnarketa horretan:

- Herri eta kultura ezberdinetariko errespetu balore etikoak transmititu eta hezitu gure gazte eta helduengan. Kultur aniztasunean irakatsi, hitz batean. Ezinbestekoa dugu, gerora begira kulturen arteko izan-ezinak jasan nahi ez baditugu, elkar ulertzeko eta elkar bizitzeko oinarri minimo batzuk. Duda barik pixkanakako elkar ezagutzak emango digu hori. Lan handia egiten ari dira zentzu honetan erakunde eta elkarte askok, baina oraindik ahaleginetan sakondu beharra dago
- Gizarteratze eta laneratze prozesua erraztu etorkinei. Egunero entzun-irakurtzen ditugu arlo hauetan etorkinek dituzten arazoak: etxeak aurkitzeko, paperak lortzeko, lan baimenak eskuratzeko,... Giza eskubideei zor zaien errespetuagatik konpondu beharrean gaude. Baina, bestalde, sektore ekonomiko askok daude kanpoko jendearen beharrean ekoizpen prozesuak ez geldiarazteko, batean anestesian espezialistak falta direla, bestean arrantza txalupetarako, bestean ostalaritza sektorean, hurrengoan industria edo eraikuntza sektoreetan, edo gertutasun zerbitzuetan, haur zaintzan, zaharren zaintzan, arazoak, ...Gurea

bezalako zaharkitutako herri batek, Europarekin parekatzeko berezko iharduera tasak igo behar ditu, jubilazio adina igoz edo laneratutako emakumeen kopuruak gehituz, eta hala ere, kanpotik etorritako jendearen beharra du.

- Aipatutako gizarteratze eta laneratze prozesuan garrantzia handia hartzen du etorritakoen formakuntza teknologikoa eta soziokulturala. Bizi garen ezaguera eta informazio gizartean, bakarrik etengabeko ikaskuntzak ziurtatuko digu gizarte aurreratu bat izatea. Eta denona behar du izan, gizarte batek ezin du aurrera jo heziketa maila baxuko populazio kopuru handi batekin.
- Ezinbestekoa dugu ere tokiko inguruan integratu jendea. Ghettoak sortzearen denborak pasatu dira. Horretan euskarak rol integratzailea jokatu dezake. Zenbait etorkinek konturatu dira euskara euskal gizartean integratzeko bide ezin hobe delako. Ez direla berdin hartuak izaten “*egunon kafetesne bat mesedez*”, edo soilik “*buenos días*” esaten dutenean. Duela gutxi, Carod-Rovira-k zioen etorkin bat Madrilen beti etorkin bat izango zela, baina katalanez hitz egiten duen etorkin bat katalan bezala hartua izango delako. Gure artean, 50. eta 60. hamarkadetako emigrazioa adibide ugari ditugu.

Seguruenez, gai asko dira ukitu daitezkeenak hausnarketa honetan, baina bukatzeko etorkinerako eszenategiaren zertzelada bat eman nahiko nuke.

Etorkizunerako eszenategia

Bi hitzetan, etorkizunari begira, Eibarko eta eskualdeko populazioaren bilakaera biztanleriaren gutxitze eta zahartzearen joerengatik baldintzatuta daude oso. Hurrengo belaunaldian aldatu ezingo duguna eta gizarte bezala baldintzatuko gaituena.

Esan bezala, bakarrik kanpoko inmigrazioak orekatuko du gure populazio piramidean dugun desoreka, jaiotze gutxiago izatearen, lanpostu egokien bila joan diren ondo hezitutako gazteen emigrazioaren, eta duela urteak etorri ziren etorkinen bere jaioterrira bueltaren ondorioa.

Desoreka horrek, konpontzen ez bada, datozen urteetan ekonomian eta gizartean eragin nabarmena izango ditu: lan sisteman, eskola sisteman, osasun sisteman, politika sisteman, seguritate sozialaren sisteman,...

Baina, mugak desagertzen doazen mundu batean, ezingo dugu kanpotik etorri nahi dutenei mugak ezarri. Eta ipar aldeko eta hego aldeko herrien arteko desoreka ekonomikoa mantentzen den bitartean kanpotik etorri nahi duten kopurua gehitzen joango da. Gaur egungo etorkinek giza eta kultur ohiturak direla medio gureak baino jaiotze tasa askoz handiagoak dituzte, luzera begira bertakoek dituztenekin parekatzen joango dira, baina bitartean, populazio oreka mantenduko duten bakarrak dira.

Beraz, eta guztion mesederako izango delako, derrigortuta gaude elkar ezagutzera, eta elkarrekin bizitzera eta ulertzera, etorkizuneko gizartea eraikitzeko.

Eneko Astigarraga
Soziologoa eta Deustuko Unibertsitateko Irakaslea
Eibar Aldizkarirako (2003/11/29)